


Seme-alabarik ez duten Euskadiko hamar gaztetik zazpi aita edo ama izan nahi dute etorkizunean

Etorkizunean aita edo ama izan nahi duten gazteek diote nahiko luketela lehen seme-alaba 29 urte dutenean izan

Euskadin seme-alabarik ez duten 30 urtez azpiko gazteen % 71,8k egunen batean izatea gustatuko litzaiekeela diote. Beste 26,2k, aldiz, gutxi gustatuko litzaiekeela edo ez litzaiekeela batere gustatuko adierazi dute.

Ikerketa horretan, beste hainbat konturekin batera, 15 eta 29 urte bitarteko gazteei etorkizunean seme-alabarik izateko gogoia duten galdetu zaie. Galdera hori urtero errepikatu izan da, eta seme-alabak izan nahi dituztela adierazten duten gazteen ehunekoak behera egin du pixkanaka, 2015 eta 2019 artean hamar puntu baino gehiagoko jaitsiera metatua izan arte.

Seme-alabak izateko nahiaren bilakaera, orain seme-alabarik ez duten 30 urtez azpiko gazteen artean (%)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia

2019ko datuen arabera, seme-alabak izateko nahia oso antzekoa da gizonen (% 72,1) eta emakumeen artean (% 71,5).

Sexua eta adina konbinatuz gero, ikusten dugu adinak gora egin ahala handitu egiten dela nesken artean seme-alabak izateko nahia; mutilen artean ez dago ia alderik 20-24 urteko taldearen eta 25-29 urteko taldearen artean.

Etorkizunean seme-alabak izateko nahia, orain seme-alabarik ez duten 15 eta 29 urte bitarteko gazteen artean									
(%)	GUZTIRA	Emakume gazteak				Gizon gazteak			
		Emakumeak guztira	15-19 urte	20-24 urte	25-29 urte	Gizonak guztira	15-19 urte	20-24 urte	25-29 urte
Asko edo nahikoa gustatuko litzaieke	71,8	71,5	66,6	72,7	75,9	72,1	67,9	74,8	74,0
Gutxi edo batere ez litzaieke gustatuko	26,2	26,2	31,4	25,4	21,5	26,1	29,6	24,3	24,1
Ed/Ee	2,0	2,2	2,1	1,9	2,6	1,8	2,6	0,9	1,9
GUZTIRA	100	100	100	100	100	100	100	100	100

Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (2019ko azaroa-abendua)

Egunen batean seme-alabak izan nahi duten gazteek adierazi dute horretarako adinik egokiena 29,7 urte dela. Emakumeek uste dute egokiena 29,3 urte dela, eta gizonak, berriz, 30,1 urte.

Adin ideal hori pixka bat atzeratzen da adinak gora egin ahala. 15-19 urteko pertsonak adierazi dute guraso izan nahiko luketela 28,3 urterekin, 20-24 urtekoen artean adin egokiena 29,5 urte da eta 25-29 urtekoen artean adin ideal hori pixka bat atzeratzen da, 31,2 urtera, hain zuzen ere.

Gazteek idealtzat jotzen duten adin hori Euskadin lehenengo seme-alaba izaten den adin errearen azpitik dago. INEK (Instituto Nacional de Estadística) ematen dituen datuen arabera, Euskadin emakumeek, batez beste, 31 urterekin izaten dute lehenengo seme-alaba, hau da, emakumeek nahiko luketen baino bi urte beranduago (datu hori [Gazteen Euskal Behatokiak bere webgunean dituen estatistiketan](#) kontsulta daiteke, **Biztanleria** izeneko atalean, hain zuzen ere).

Bestalde, oraindik seme-alabarik ez duten gazteei ea adin ideal honetan izango dutela uste duten galdetu zaie. % 63,9k uste dute baietz (segur aski edo agian bai) eta % 30,4k, aldiz, ezezko erantzuna eman dute (ez dute uste edo seguruenik ez).

Beren ustez egokiena den adinean seme-alabak izateko probabilitatea gaur egun seme-alabarik ez duten eta etorkizunean izan nahi duten 15 eta 29 urte bitarteko euskal gazteen artean									
(%)	GUZTIRA	Emakume gazteak				Gizon gazteak			
		Emakumeak guztira	15-19 urte	20-24 urte	25-29 urte	Gizonak guztira	15-19 urte	20-24 urte	25-29 urte
Segur aski edo agian bai	63,9	64,7	62,9	68,8	62,5	63,1	70,7	65,2	53,6
Ez duzu uste edo seguruenik ez	30,4	29,5	29,3	30,3	28,8	31,2	25,7	28,2	39,9
Ed/Ee	5,7	5,9	7,7	0,9	8,8	5,6	3,6	6,6	6,6
GUZTIRA	100	100	100	100	100	100	100	100	100

Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (2019ko azaroa-abendua)

25 eta 29 urte bitartekoak dira etorkizunean seme-alabak adin egokienean izateko aukera gutxien aurreikusten dituztenak, eta, zehazki, 25 eta 29 urte bitarteko gizonak dira aukera gutxien aurreikusten dituztenak.

Datu horiek Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte politiketako Sailaren [Gazteen Euskal Behatokiak](#) 2019ko azarotik abendura bitartean telefonoz egindako inkesta batetik datoz. Inkesta horretan, Euskadin bizi diren 15 eta 29 urte bitarteko 1512 pertsona elkarrizketatu ziren.